

Gipuzkoako Foru Aldundia
Mugikortasun eta Garraio Publikoko Zuzendaritza
Ander Iturri Torrea jauna

**ASTIGARRAGAKO UDALAREN EKARPENAK BURUNTZALDEKO ERREPIDE BIDEZKO
BIDAIARIEN HIRIARTEKO GARRAIOAREN ZERBITZU PUBLIKO BERRIA DELA ETA**

Jaun hori,

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Publikoko Zuzendaritzak 2021-05-14an Udalari idatzia helarazi zion, adieraziz 2021eko uztailaren 1etik aurrera, "Tolosa, N-I eta Buruntzaldea eta Donostiarekiko loturak" errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraioaren zerbitzu publiko erregular berria hasiko dela.

Idatzi hori jaso ondoren, Astigarragako Udalak, batetik, Mugikortasun eta Garraio Publikoko Zuzendaritzari bilera bat egiteko hitzordua eskatu zion (bilera hori 2021-05-20an egin genuen) eta, bestetik, herritarrekin bilera ireki bat deitu zuen (2021-05-20an egin zen), herritarren iritzi eta ekarpenak jasotzeko.

Aurreko paragrafoan aipatu den Foru Aldundiaren eta Astigarragako Udalaren arteko bileran konpromisoa hartu genuen 2021-05-26an gure ekarpen eta iritziak Foru Aldundiari helarazteko.

Horrenbestez, idatzi honekin batera helarazten dizkizut Astigarragako Udalaren ekarpen eta proposamenak.

Ekarpenok kontuan hartuko dituzuelakoan, begirunez, agur.

Astigarragan, 2021eko maiatzaren 26an

XABIER
URDANGARIN
LASA - 35776200E

Firmado digitalmente por
XABIER URDANGARIN
LASA - 35776200E
Fecha: 2021.05.26
08:13:59 +02'00'

Xabier Urdangarin Lasa
Astigarragako alkatea

ASTIGARRAGAKO UDALAREN ERANTZUNA FORU ALDUNDIKO MUGIKORTASUNEN ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUARI, "TOLOSA, N-I ETA BURUNTZALDEA ETA DONOSTIAREKIKO LOTURAK" ERREPIDE BIDEZKO BIDAIARIEN HIRIARTEKO GARRAIOAREN ZERBITZU PUBLIKO BERRIA DELA ETA

1. Aurrekariak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Garraio Publikoko Zuzendaritzak 2021-05-14an Udalari idatzia helarazi zion, adieraziz 2021eko uztailaren 1etik aurrera, "Tolosa, N-I eta Buruntzaldea eta Donostiarekiko loturak" errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraioaren zerbitzu publiko erregular berria hasiko dela.

Horrekin batera, idatziak adierazten du Foru Aldundia Astigarragari zerbitzua ematen dioten A1 (zerbitzu berrian BU12) eta A2 (zerbitzu berrian BU13) lineetako zerbitzu-eskaintza amaitzen ari dela eta linea horien erabiltzaileen aldetik jasotako kexa eta erreklamazioak ikusita, Astigarragako Udalari aukera hauek planteatu nahi dizkiotela, udalaren iritzia eta ekarpenak jasotzeko:

1. A1 linearen maiztasuna murriztea: ordubeteko maiztasunera pasatzea proposatzen dugu, gaur egungo 30 minutukoaren aurrean; eta A2 linearen maiztasuna handitzea, 30 minututik 20ra igaroz.

2. A1 linearen ibilbidea aldatzea, ibilbide denbora murrizteko. Hau da:

a. Astigarraga udalerrira sartzeko saihestea (Pilotari, Galtzaur 8, Galtzaur 24 Donostiarako noranzkoan eta Pelotari kalea eta Kale Nagusia Hernanirako noranzkoan bertan-behera utziz), Astigarragan A2 linearen ibilbide bera eginez.

b. Donostiara sartzeko ibilbidea aldatzea: "Loiolako topoa" geralekutik, "Loiolako erriberak", "Madril etorbidea, 3" eta "Antso Jakituna, 33" geralekuak egingo lirateke, "Okendo" geralekuraino. "Bartzelona 35", "Bartzelona 15", "Gregorio Ordoñez" eta "Madril etorbidea, 19" geralekuak bertan behera utziz.

3. Aurreko bi aukerak batera aplikatzea.

Foru Aldundiaren esnaetan, aukera horien helburua da A1 linearen ibilbide-denbora murriztea, erakargarriagoa izan dadin eta A2 linearekin lehiakorragoa, erabiltzaile gehienek ahalik eta zerbitzu zuzenenak bilatzen dituztelako.

Idatzi hori jaso ondoren, Astigarragako Udalak, batetik, Mugikortasun eta Garraio Publikoko Zuzendaritzari bilera bat egiteko hitzordua eskatu zion (bilera hori 2021-05-20an egin genuen) eta, bestetik, herritarrekin bilera ireki bat deitu zuen (2021-05-20an egin zen), herritarren iritzi eta ekarpenak jasotzeko.

Aurreko paragrafoan aipatu den Foru Aldundiaren eta Astigarragako Udalaren arteko bileran Udalak konpromisoa hartu zuen 2021-05-26an Foru Aldundiari bere ekarpen eta iritziak helarazteko. Horixe da, hain zuzen ere, idatzi honen xedea.

2. Kontuan hartzekoak

Bigarren atal honetan gai honi buruz kontuan hartzeko hainbat alderdi zehaztu eta azalduko ditugu, udalaren ikuspegitik eta herritarren ikuspegitik.

2.1 Astigarragako herriaren hazkundera

Astigarragako biztanleriaren bilakaerak hazkundera nabarmena izan du azken urteotan: 2000. urtean 3.634 biztanle zituen eta 2021eko apirilean 7.302 biztanle. 2019an Udalak egin zuen azterketa prospektiboaren arabera 2025ean 8.000 biztanle inguru izango gara. Aipagarria da, halaber, jaiotza-tasa, Gipuzkoako edo Euskadikoaren bikoitza.

	Astigarraga		Jaiotza-tasa (%)		
	Biztanleria	Jaiotzak	Astigarraga	Gipuzkoa	Euskadi
2000	3.634	52	14,3	8,9	8,3
2001	3791	67	17,7	9,2	8,5
2002	3947	68	17,2	9,2	8,7
2003	4109	60	14,6	9,9	9,2
2004	4148	80	19,3	9,9	9,3
2005	4234	90	21,3	9,9	9,3
2006	4386	74	16,9	10,2	9,4
2007	4523	72	15,9	10,4	9,6
2008	4678	73	15,6	10,4	9,9
2009	4715	80	17,0	10,2	9,7
2010	4821	94	19,5	10,3	9,7
2011	5000	73	14,6	10,0	9,7
2012	5306	96	18,1	9,8	9,4
2013	5536	95	17,2	8,9	8,8
2014	5688	103	18,1	9,0	8,9
2015	5881	95	16,2	9,0	8,7
2016	6073	116	19,1	8,4	8,4
2017	6276	122	19,4	7,8	7,8
2018	6539	87	13,3	7,6	7,4
2019	7029	98	13,9	7,2	7,0
2020	7225	112	15,5		
2021	7302*				

* 2021eko apirileko datua

2.2. Buruntzaldeko herrien biztanleriaren bilakaera

Buruntzaldeko udalerriei erreparatzen badiegu, ikus dezakegu Astigarragaren hazkundera ezohikoa dela.

Cifras oficiales de población resultantes de la revisión del Padrón municipal a 1 de enero

Detalle municipal

Gipuzkoa: Población por municipios y sexo.

Unidades: Personas

	7.300			6.272	1.028	16,4%	6.077	1.223	20,1%			5.535	1.765	31,9%
	Total													
	2021	2020	2019	2018			2017			2016	2015	2014		
20 Gipuzkoa		727.121	723.576	720.592	6.529	0,9%	719.282	7.839	1,1%	717.832	716.834	715.148	11.973	1,7%
20009 Andoain		14.891	14.637	14.618	73	0,5%	14.659	32	0,2%	14.613	14.668	14.655	36	0,2%
20903 Astigarraga	7.300	7.029	6.532	6.272	757	12,1%	6.077	952	13,5%	5.880	5.688	5.535	1.494	27,0%
20069 Donostia/San Sebastián		188.240	187.415	186.665	1.575	0,8%	186.370	1.870	1,0%	186.064	186.095	186.128	2.114	1,1%
20040 Hernani		20.438	20.354	20.222	216	1,1%	20.003	435	2,1%	19.712	19.600	19.601	837	4,3%
20902 Lasarte-Oria		18.594	18.380	18.253	341	1,9%	18.166	428	2,3%	18.152	18.093	18.082	512	2,8%
20053 Lezo		6.103	6.122	6.045	58	1,0%	6.025	78	1,3%	5.960	5.990	6.007	96	1,6%
20063 Oiartzun		10.309	10.293	10.278	33	0,3%	10.199	110	1,1%	10.175	10.148	9.970	339	3,4%
20064 Pasaia		16.035	16.156	16.128	-93	-0,6%	16.096	-81	-0,4%	16.207	16.012	15.929	106	0,7%
20072 Urnieta		6.185	6.168	6.170	15	0,2%	6.242	-57	-0,9%	6.247	6.239	6.198	-13	-0,2%
20073 Usurbil		6.173	6.174	6.165	8	0,1%	6.159	14	0,2%	6.197	6.183	6.168	5	0,1%

2.3. Garraio publikoko zerbitzu bakarra

Astigarragak garraio publikoko zerbitzu bakarra du, A1 eta A2 lineek osatzen dutena. Linea horiekin "Hernani-Donostia mendebaldea" ardatza baizik ez dugu eskura. Ez dugu inolako garraio publikorik oso hurbil ditugun udalerriekin (Errenteria, Oiartzun, Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria) edota zerbitzu publiko garrantzitsuak eskaintzen dizkigun Donostiako hainbat eremurekin (Ospitalea, Donostia ekialdea, Errotaburu, Zuatzu, Unibertsitateak...).

2.4. Zerbitzu eskasa azken urteotan

Azken urteotan A1 eta A2 lineek eskaini duten zerbitzua oso eskasa izan da. Herritarrek etengabe aurkeztu dizkiote kexa eta erreklamazioak Udalari nahiz Foru Aldundiari:

- Matxurak
- Errefortzuko zerbitzuak kasu batzuetan eman gabe
- Erabiltzaileak geltokian geratu beharra leku faltagatik
- Autobusen egoera txarra: garbitasun falta, aire egokiturik ez
- Irisgarritasun baldintzak betetzen ez dituzten autobusak

2.5. Irisgarritasun arazoak

Bereziki larria iruditzen zaigu azken hilabete luzetan irisgarritasun aldetik izan den arazoa, distantzia luzetarako autobusak erabiltzearen ondorioz. Matxurak eta autobus gabezia gainditzeko, oinarrizko irisgarritasun baldintzak betetzen ez dituzten distantzia luzerako autobusak jarri dira zerbitzuan: autobus horietan ezin dira haurren aulkiak edo gurpildun aulkiak sartu eta hori onartezina da.

Autobus berriak jarri bitartean distantzia luzetarako autobusak erabiltzea ezinbestekoa baldin bada, autobus hori zehazki zein orduetan pasako den jakinaraztea ezinbestekoa ikusten dugu, erabiltzaileak jakinaren gainean egon daitezten. Irtenbidea izan daiteke autobus horiek soilik errefortzuetan erabiltzea, baina horrela eginez gero ere erabiltzaileei jakinarazi egin beharko litzaieke.

2.6. A1 eta A2 lineen erabilpena

Azken urteotako zerbitzu eskasaren ondorioz, uste dugu Foru Aldundiak ezagutzera eman dizkigun A1 eta A2 lineen erabilpen datuak eta benetako beharren eta eskariaren errealitatea ez datozela bat.

Eskaintako zerbitzuak herritar eta erabiltzaileen artean konfiantzarik eza eta ezinegona sortu ditu eta asko dira autobusa erabili ordez auto pribatua erabiltzen dutenak. Uste dugu zerbitzu eskaintza handitu eta kalitatea hobetzeak nabarmen igoaraziko duela erabiltzaile kopurua.

2.7. A1 eta A2 lineak, bi zerbitzu

A1 eta A2 linean ezin dira ulertu linea lehiakide moduan. Bakoitzak zerbitzu desberdin bat eskaintzen du eta helburu eta erabiltzaile desberdinak ditu jomugan. Beraz, batak ez du bestea ordezkatzen. Gaur egun biak dira beharrezkoak herritarrek dituzten mugikortasun beharrak minimoki asetzeko.

Kontuan hartu behar da erabiltzaileen perfila, batik bat, A1eko linean. Herriko nerabe guztiek bigarren hezkuntzako formazioa (DBH3, DBH4) herritik kanpo egiten dute. Nagusiki Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastolan. Beraz, A1 ezinbestekoa dute bertaratzeko. Bestetik, Loiolako La Salle ikastetxera ere astigartar dezente joaten da ikasketak egitera. Eta, azkenik, Toporako konexioa batik bat Loiolako geltokian egiten da.

Horregatik, kontuan hartu behar da A1 lineako erabiltzaileak, erabiltzaile gatibuak direla, hau da, ez dutela beste alternatibarik. Horregatik, ez da egokia A1 linea A2 linearekin

alderatzea eta bateko baliabideak bestera bideratzea.

A1 linearen erabiltzaile kopurua txikiagoa izan arren, astigartarrantzat funtsezko mugikortasun ardatza da (Martutene-Txomin-Loiola-Erribera-Amara) eta ordueroko maiztasuna ez da onargarria gisa honetako ibilbide batean, jakinik ardatz horren bidaiari gehien xedea ikastera edo lanera joatea dela.

2.8. Gaur egungo zerbitzua eta zerbitzu berria: murrizketak

Ordu-tegiari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi digu emakida berria arautzen duten pleguetan ezarri ziren ordu-tegiak aplikatuko direla zerbitzu berrian. Horrek esan nahi du uztailaren 1etik aurrera Astigarragan murrizketak egingo direla:

Astigarragatik	Astegunetan				Larunbatetan				Igandetan				GUZTIRA			
	*GE	**EPT			GE	EPT			GE	EPT			GE	EPT		
Hernanira	75	66	-9	-12%	66	44	-22	-33%	60	34	-26	-43%	201	144	-57	-28%
Martutene-Loiolara Donostiara	33	30	-3	-9%	33	20	-13	-39%	31	16	-15	-48%	97	66	-31	-32%
Auzoz-auzo (A1)	33	30	-3	-9%	33	20	-13	-39%	31	16	-15	-48%	97	66	-31	-32%
Zuzena (A2)	40	36	-4	-10%	32	25	-7	-22%	29	19	-10	-34%	101	80	-21	-21%
GUZTIRA	73	66	-7	-10%	65	45	-20	-31%	60	35	-25	-42%	198	146	-52	-26%

* GE, gaur egun

** EPT, emakida berriaren plegu teknikoak

Datu horien arabera, martxan jarriko den emakida berriak Astigarragan murrizketak aplikatzea eragingo du, batik bat larunbat eta igandetan.

Astegunetan Donostiara joateko %10 autobus gutxiago izango ditugu, larunbatetan %31 gutxiago eta igandetan %42 gutxiago.

Guztira, Astigarragak plegu hauen bidez %27 autobus gutxiago izango ditu orokorrean. %28 gutxiago Hernanira joateko eta %26 gutxiago Donostiara joateko.

Kontuan hartuta gaur egungo zerbitzu hau gutxienez indarrean dagoela 2014tik, 7 urte ondoren eta ia 1.500 biztanle gehiagorekin zerbitzua murriztea, onartezina iruditzen zaigu.

2.9. Ondorioak

Aurreko datuak kontuan hartuta, ondorio garbi hauek atera daitezke:

- Astigarragan biztanle kopurua eta garraio publikoaren beharrak gero eta handiagoak dira. Astigarragako biztanle kopuruaren hazkundera eta bilakaera erabat ezohikoak dira (Buruntzaldeko gainerako udalerriekin alderatuta nabarmen handiagoa) eta, ondorioz, tratamendu berezia eskatzen du garraio publikoari dagokionez.
- Biztanle gazteen kopurua, ikasketak egitera inguruko herrietara joan behar dutenena, handia da (Astigarragan soilik Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza egin daitezke).
- Astigarragak garraio publikoko zerbitzu bakarra du eta oso mugatua da (Urumeako korridorea).
- A1 linearen ordueroko maiztasuna ez da eraginkorra gisa horretako mugikortasun ardatz bati erantzuteko (Astigarraga-Martutene-Txomin-Loiola-Erribera-Amara).
- Uztailaren 1ean indarrean jarriko den emakida berriaren plegu teknikoetan zehazten diren ordutegiak zerbitzua murriztu egiten dute gaurko zerbitzuarekin alderatuta.
- Foru Aldundiak egindako proposamenaren funtsa da baliabideak erabiltzaile eta harrera hobea duen lineara lekualdatzea, baliabiderik gehitu gabe.
- Azken urteotako zerbitzuaren kalitatea bereziki eskasa izan da eta garraio publikoaren zerbitzu berriak astigartarren konfiantza irabazi behar du. Astigartarrek ziurtasuna eduki eta sentitu behar dute zerbitzu horrek beren beharrei erantzungo diela, behar den kalitate eta eraginkortasunarekin.

3. Astigarragako Udalaren eta herritarren ekarpenak

Astigarragako Udalaren ustez, aurreko atalean xehe-xehe azaldu ditugun datu eta gogoetak kontuan hartuta, Astigarragak behar duen garraio publikoko autobus zerbitzua hurrengoa litzateke gutxienez: **A2 linea 20 minuturo eta A1 linea orduerdiro.**

Bestetik, A1 eta A2 lineen ordutegiak aldatzea aztertu egin beharko litzatekeela uste dugu, batik bat, Arantzazuko Ama Ikastola eta La Salle ikastetxera haur eta nerabeen sarrera bermatzeko. A1 linea Hernanitik *eta laurdenetan* eta *laurden gutxitan* aterako balitz, haur eta nerabeen sarrera nabarmen erraztuko litzateke, Martutenen nahiz Loiolan. Martutenen

haurrak 8:15ean sartzen dira eta beraz, gaur egun, Hernanitik 7:30ean ateratzen den busa hartu behar dute, baina 20 minutu lehenago iristen dira. Aldiz, busa Hernanitik 7:45ean aterako balitz, 5 minutu lehenago iritsiko lirateke. Gauza bera gertatzen da La Salleko sarrera-irteerekin. Irtenbide hori ematen ez bazaio, A1 linean errefortzu bat jarri beharko litzateke, gutxienez eskola sarrera ordu horietan.

A2 lineari dagokionez, maiztasuna handitzeko (20 minutuero edo maizago) irtenbide hauek landu daitezkeela uste dugu:

- Emakidaren kontratu aldaketa bat izapidetu, A2 lineak 20 minutuero maiztasuna izateko.
- dBusekin autobusak hobeto koordinatzeko proiektua landu eta ezarri. Astigarragako Mugikortasun Jasangarrirako Planak landu duen aukera da hau eta honetan datza:
 - dBusen 26. linea Astigarragara luzatu, linea horrek 12 minutuero maiztasuna izango luke.
 - Horren ondorioz, A1 linea ezabatu egingo litzateke, A1 linearen baliabideak A2 lineara pasako lirateke eta A2 lineak 12 minutuero maiztasuna lortuko luke.



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUd37c43f6-7e92-491f-b8e9-8cae1efa04bf**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08410>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08410>**



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ZIRRIBORROA - BORRADOR**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08410>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08410>**